

# BALEIKE



215. ZENBAKIA. EURO BAT  
2012ko AZAROA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)

## ONDDO BARATZEAK BASOAREN ERDIAN

**Onddoak landatzeko  
teknika ari da garatzen  
Jaime Olaizola  
baso ingeniaria**



Kalitatezko  
produktuak

Gipuzkoako  
Okelaren  
Ziurtagiria:  
GI-OKELA

# Juanjo Larrañaga harategia



**ZUMAIA**

Basadi auzategia, 4. Tel./Faxa: 943 860 621

**ZARAUTZ**

Salegi kalea, 14. Tel./Faxa: 943 890 215

# BALEIKE 215

AZALA J. Olaizola



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

agustinzubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOKIKOM**

9

baleike +

**EUSKARA  
GUTXIAGO  
GURE KALEETAN**

6

elkarrizketa

JAIME OLAIZOLA:

“ONDDOA ETA ARBOLA  
SINBIOSIAN BIZI DIRA”

16

argazkitan

BODYBOARD

TXAPELKETA

23

erretratua

MARIE TOURE

29

agenda

AZAROA - ABENDUA

30

bertso xorta

JOSU MANZISIDOR

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Zumaia Udalak**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**



Jaime **OLAIZOLA** | Baso ingeniaria

# “ONDDOA ETA ARBOLA SINBIOSIAN BIZI DIRA”

Perretxikoak biltzeko zaletasuna oso zabaldua dago Euskal Herrian. Azken urteotan, gainera, inoiz baino jende gehiago dabil, zenbait espezieren iraupena kolokan jartzeraino. Jaime Olaizolaren iritziz, perretxikoak landatzea izan daiteke soluzioa.

TESTUA: GORKA ZABALETA



Udazkenarekin batera, onddo biltzailearen sukarra zabal-tzen da Euskal Herriko bazter askotara. Basoak debalde ematen duen gutziaren deiari norik egin muzin? “Zaletasuna oso errotuta dago, baina arazoa da gero eta jende gehi-go doala eta askotan itsu-itsuan, ahalik eta gehien biltzera. Eta ez hori bakarrik: lauzpabost espezie baino ez ditugu ezagutzen, jateko oso onak diren beste asko dauden arren. Ezjakintasunak presio handia eragiten du espezie gutxi horiengan eta desagertzeko arriskuan jartzen ditugu”.

Baso ingeniaria da Jaime Olaizola, (Zumaia, 1974), mikologian aditua. “Gogoan daukat umetan frontoian egiten ziren perretxiko erakusketetara joaten nintzela, eta etxean ere baziren zenbait liburu. Manuel Beobidek oparitu zidan lehen liburua, Iberduerok argitaratu zuena. Zaletu egin nintzen. Aurrerago, Palentziara joan nintzen baso ingeniari-tza ikastera eta han Juan Andres Oria de Rueda irakaslearekin egin nuen topo. Berak bultzatu ninduen mikologian sakontzera. Ikasketak amaitu nituenean beka bat lortu nuen doktore tesia egiteko, perretxiko eta onddo mikorriziko jangarrien inguruan. 2009an, ECM Ingeniería Ambiental S.L. –[www.ecmingeneriaambiental.com](http://www.ecmingeneriaambiental.com)– enpresa sortu

genuen hiru bazkideren artean, eta perretxiko eta onddoen ikerketa praktikoa da gure zeregina. Palentzian hasi ginen, baina gaur egun Elgoibarren daukagu bulegoa”.

Ezjakintasuna da Olaizolak aipatzen duen lehen arazoa. Ezjakintasuna, baita ere zientzialarien artean, “oso gutxi ikertu delako”. “Egia esan, oso gutxi dakigu. Perretxikoak zergatik urte batzuetan irteten dira eta beste batzuetan ez hainbeste? Nola hazten dira? Ikerketen bidez hasi gara pixkanaka infomazioa lortzen. Ulertu behar dugu espezie bakoitzak bere ezaugarriak dituela, bizitzeko modu propioa du bakoitzak”. Horiek ezagutu eta ulertu behar dira lehenik, behar bezala ustiatzeko eta ugaltzen laguntzeko.

Lehenik eta behin, jakin behar da guk biltzen duguna fruitua baino ez dela. “Onddoren mizelioa lur azpian bizi da urte osoan, eta noizean behin fruitua ematen du. Horixe da perretxikoa, fruitua”. Hiru multzo handitan sailka daitezke. Lehenengoa, lur-rean dagoen materia organiko-tik bizi direnak (saprofitoak); txanpinoiak, adibidez. Beste multzo batean, parasitoak daukagu: beste izaki bizidun baten kontura bizi dira. Azken multzoan daude arboletako sustraiekin elkarlanean bizi direnak (mikorrizikoak); adibi-



## ONDDOAK

Onddoak oso estimatuak dira Euskal Herriko petxerrikozaleen artean.



JAI ME OLAIZOLA

### ▲ MIKORRIZAZIOA

*Onddoaren mizelioak eta arbolaren sustraiak bat egiten dute.*

dez, esnegorria (niskaltoa edo robelloia) pinuarekin elkartuta bizi da; onddoak (boletusak), berriz, haritza, pagoa, artea edo pinuarekin; boilurra artearekin... “Azken horiek dira jateko gehien interesatzen zaizkigunak”.

Lurrean aurkitzen duten materia organikotik bizi diren perretxikoen baratzek sortzeko aparteko arazorik ez dago. Txanpinoiekin eta zenbait perretxikorekin aspalditik egiten da. Baina aipatu dugun azken multzokoeekin (mikorrizikoeekin) ez da hain erraza. Teknika eraginkorra garatu ahal izateko espeziearen bizimodua ezagutu behar da.

#### Arbola eta onddoa, sinbiosian

Kontuan hartu behar da basoetan biltzen ditugun perretxiko gehienak sinbiosian bizi direla inguruan dauzkaten arbolekin. “Horrek esan nahi du elkar behar dutela aurrera egiteko. Onddoaren mizelioa arbolaren sustraiari itsatsita bizi da, biak bat eginda. Mizelioak ura eta mineralak ematen dizkio arbolari: mizelioaren filamentuak sustrairik finena baino finagoak direnez, xurgatzeko ahalmen handiagoa dute; arbolak, berriz, fotosintesiaren bitartez ekoiztutako azukreak ematen dizkio onddoari. Landareen %95 sinbiosian bizi diren onddoak dituzte sustraietan. Are gehiago, pentsatzen da onddoei esker egin zutela aurrera lehen landareek”. Arbolaren eta onddoaren arteko elkarbizitza hori aintzat hartzea ezinbestekoa da modu kontrolatuan ekoizten hasi nahi bada. “Esate baterako, badakigu zenbat eta lur zailagoa izan arbolarentzat, orduan

“Zenbat eta lur zailagoa arbolarentzat, orduan eta onddo gehiago”



JAI ME OLAIZOLA

### ▲ LABORATEGIKO LANA

*Onddo gazteen esporetatik abiatuta lortzen dituzte mizelioak laborategian.*

### ► ZIZA HORIAK

*Lauzpabost dira gehien biltzen diren perretxiko espezieak, jateko oso onak diren 20tik gora dauden arren.*

eta onddo gehiago izango direla. Horrek badu bere logika: arbolak laguntza handiagoa behar du aurrera egiteko”.

Onddo mikorrizikoen artean daude hain zuzen ere, guk gehien estimatzen ditugun perretxikoak. Ba al dago, esate baterako, onddo beltzak edo ziza horiak landatzeko modurik?

Teknikarik garatu al da? Lan horretan ari da, hain zuzen ere, Jaime Olaizola. “Zenbait onddo mikorrizikorekin lortu da. Adibidez, boilurrarekin (trufa). Duela 30 bat urte hasi ziren Frantzia arteen sustraiak mikorrizatzeko. Haztegitan, arte gazteen sustraietan onddoak jartzen dituzte. Sustraiak eta onddoak bat egiten duten prozesuari deitzen saio mikorrizazioa. Hori lortzen denean, arteak basoan landatu eta zortzi edo hamar urte behar dira lehen boilurrak emateko. Esnegorria (niskaltoa) da beste adibide bat. Pinu gazteen sustraiak haztegitan mikorrizatzeko dituzte. Gero pinu hori basoan edo lorategian landa daiteke eta hiru edo lau urteren buruan perretxikoak aterako dira”.

Boletusen kasua

#### Boletusen kasua

Gure artean hain estimatuak diren *boletus*-en (onddo zuria, onddo beltza...) kasuan zailtasunak daude, ordea. Aurreko bi kasuetan ez bezala, onddoek zuhaitz heldua behar dute sustraiarekin bat egiteko (mikorrizatzeko), 30-40 urtetik gorakoa. Haztegitan saiatu dira haritz edo pago gazteekin baina alferrik. Beraz, beste sistema batzuk erabili behar dira. Horiek iker-

## Jakingarriak

- Zenbat biltzen da? Euskal Herrian, espezie jangarri ohikoaren artean, basoek ematen dutenaren %75; Sorian, %50.
- Bazterrak gehiegi zapaltzea oso kaltegarria da onddoentzat.
- Eskuera erabiltzea hostoak kentzeko astakeria da, ondoaren mizelioa bistan gelditu eta lehortu egiten baita.
- Perretxikoa, moztu edo osorik atera behar da? Zelaian hazten direnen kasuan, txanpinoiak adibidez, komeni da labana batekin oina moztea. Osorik ateraz gero, elikagaiak ere eramango ditugu eta hor ez da alerik haziko. Arbolekin sinbiosian bizi direnak –onddoak, adibidez–, osorik atera daitezke, baina garrantzitsua da zuloa estaltzea, mizelioa lehortu ez dadin.
- Oso zabaldua dagoen ustea: perretxikoak otarrean eraman behar dira basoan oinez goazen bitartean esporak zabal daitezkeen. Olaizolak dio zientifikoki ez duela inolako zentzurik, zabal daitezkeen espora horiek ez dutela inolako eraginik. Hori bai, otarra gomendatzen du perretxikoak freskoago egoteko.



JAIME OLAIZOLA

### ▼ ASTE MIKOLOGIKOA

Aste Mikologikoan eman zuen hitzaldia Jaime Olaizolak.



GORKA ZABALETA

tzen eta praktikan jartzen ari da Olaizola. Dagoeneko emaitzak lortu dituzte: “Aurrena, onddo gazteak biltzen ditugu basoan. Horiek dituzte esporetatik abiatuta, onddoen mizelioak lortzen ditugu laborategian. Ondoren, aukeratutako basora joan eta bertan egiten dugu mikorrizazioa. Arbolari sustraiak moztu eta mizelioak justu ebakien parean jartzen dizkiogu. Lurrez estali eta zain egon behar da. Sustraiak hazten denean, mizelioarekin egingo du topo eta mikorrizazioa gertatutako da. Hortik aurrera, onddoak emango ditu”. Oraindik probak ari dira egiten baina teknika hasi da emaitzak ematen.

Onddoak ekoizteko teknika hobetu bezain laster, Olaizolak uste du basoak ustiatzeko ohiturak alda daitezkeela. “Pinu eta eukalipto asko landatu dira gure mendietan, egu-

“Hariztiak edo pagadiak berreskura daitezke onddoen ekoizpenari esker”

iruditzen zaigu. Baina denbora tarte horretan basoari etekina ateratzea badagoela uste dugu guk, perretxikoen ekoizpenarekin. Gaur egun hutsaren hurrengo balio duten pinudi ordez berriro hariztiak edo pagadiak berreskura daitezke onddoen ekoizpenari esker”.

Etorkizunean, gure mahaietara iritsiko diren onddo eta perretxiko gehienak *basoetako baratzeetan* ekoiztutakoak izango direla uste du Olaizolak. Horretarako ari dira lanean, behintzat. Gaur egun gehiegi ustiatzen diren espezieak salbatzeko bidea dela uste du. Baina, bitartean, beste neurri batzuen premia jarri du mahai gainean. “Basoaren iraunkortasuna bermatuko duten kudeaketa ereduak aztertu beharko dira, berandu baino lehen”. Ultzamako adibidea jarri du. “Ultzaman ordaindu egin behar da perretxikoetara joateko eta ezin da nahi adina bildu. Trukean, zenbait zerbitzu eskaintzen dituzte perretxikoen mundua hobeto ezagutu eta gehiago gozatzeko”. Aurrera begira, astialdiari lotutako jarduera arautua izango dela uste du Olaizolak. “Kontsumorako behar dena modu kontrolatuan ekoizteko aukera dagoen neurrian, perretxikozaletasuna gehiago izan daiteke turismoari edo astialdiari lotutako ekintza arautua”. ■

rraren negoziolari begira. Oso azkar hazten diren espezieak dira. Harizti batetik egurra ateratzeko, aldiz, 80-90 urte itxaron behar da, eta hori gaur egun gehiegi



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

7 MARES, Izoituak

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak  
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak  
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala  
tel/Faxa: 943 14 31 20



**AIZPURUA**

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569



**ALAI BERRI**  
supermerkatuak

Asteleheneetik igandera 08:00etatik 15:00etara  
eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.

Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261



*Paladar dulce, corazón sano*

*Aho bete gogo, bilhotz bete osasun*



**ALGORRI**TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



**ANA**  
ETXeko ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157 [anaetxeokozapiak@telefonica.net](mailto:anaetxeokozapiak@telefonica.net)



ILEA PAINDEGIA

*D'Ana*

Kantauri plaza, 6. behea  
tel. 943 117 408

**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

[www.ardantzabide.com](http://www.ardantzabide.com)

Erakusketa. Hego kalea, 4-5  
Denda. Txomin Agirre, 4  
Tel.: 943 862 532


Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

[www.argisun.com](http://www.argisun.com)  
[info@argisun.com](mailto:info@argisun.com)



**OKINDEGIA**  
Arkupe

Nagusia, 2 • tel. 943 561 501  
ZUMAIA

**OGI-EDER**



**ARRUTI**  
Baltasar Etxabe 2/9  
Zumaia 943016429



**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5  
tel. 943 861 485



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25  
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306  
[bakun@euskalnet.net](mailto:bakun@euskalnet.net)



**Basadi albaitaritza**


Ribaitario  
Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea • tel. 943 143 310  
[www.basadiclinicvet.com](http://www.basadiclinicvet.com)

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean itxia

Lamiakelarsko: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

**BASUSTA**  
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25  
tel. 943 862 073



**Braky's**  
Okindegia Katedegia

Izaga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289



# EUSKARA GUTXIAGO GURE KALEETAN

TESTUA: XABIER AZKUE

Zumaiako kaleetan entzuten diren solasaldien %52,8 euskaraz dira, duela bost urte baino bost puntu gutxiago (%58). Kezkatzeko datua da, baina bada itxaropenerako arrazoirik ere, gazteen artean (15-24 urte artekoetan) euskararen kale erabilera oso altua baita: %71koa.

Urriaren 29an Alondegian aurkeztu zituen Belen Urangak Zumaiako neurketaren emaitzak. Soziolinguistia Klusterrak bost urtean behin egiten duen ikerketak ez du euskararen ezagutza maila neurtzen; ez da galdeketa oinarritzen. Kalean entzuten den euskara neurtzen du, zenbat solasaldi diren euskaraz. Eta neurketa “disimuluan” egiten da, ikerketa egiten ari direla adierazi gabe. Kaleko errealtatearen erretratu gordina egiten dela esan genezake. Ikerketaren emaitza ahalik eta fidagarriena izan dadin, neurketa sakona egiten da. Zumaiaren kasuan, 1.616 elkarrizketa neurtu ziren, 5.063 solaskide guztira. Lan mardula, beraz. Ikerketak emandako emaitza nagusiak ekarri dizkizuegu.

## Euskararen kaleko erabilera jaitsi egin da

Ez da ikaragarri jaitsi, baina behera egin du. 2000an %55,8koa zen ehuneko; 2007an %58koa; 2012an %52,8koa. Beraz, gaur egun, duela hamar edo bost urte baino euskara gutxiago entzuten da Zumaiako kaleetan. Datu hau gaitasun mailarekin alderatzea interesgarria izan daiteke –Eustatek neurtzen du, galdeketa bidez–. Zumaiarren %71,2 da euskaraz egiteko gai (2006ko datua). Antzeko herrietan ehuneko horrek gora egin duen arren, Zumaiara zertxobait jaitsi egin da, 2001ean %73,2koa zen eta; Belen Urangak esan zuenez, “txokantea da datu hori, eta hobeto aztertu beharrekoa”. Laburbilduz, beraz, zumaiarren %71 inguruk daki euskaraz eta kaleko hizketaldien %52,8 dira euskaraz. Gainerako elkarrizketa gehienak gaztelaniaz dira (%45,8) eta gutxi batzuk beste hizkuntza batzuetan (%1,4).

## Eta non entzuten da eukstra gehien?

Herriko hiru eremu hartu dira neurketa egiteko, eta bakoitzean ibilbide bana diseinatu da: erdigunea, Amaia plaza Parolerakoa, eta Basadi aldea (poligonoak). Euskara gehien poligonoetan entzuten da (Basadi, Alai...), elkarrizketen %56; ondoren, erdigunean: %54,1; gutxien, berriz, Amaia plaza Parolaldera: %47,3. Esanguratsua da ikustea duela 5 urte euskara gutxien Basadi inguru horretan entzuten zela, eta aldaketa horren arrazoia izan daiteke azken urteotan inguru horretako etxe berrietara (Victoriano Arrate, Puntanoeta...) bizitzera joan den gazte kopuru handia.

## Zumaiara inguruarekin alderatuta

Datuak testuinguruarekin alderatzea ere ariketa interesgarria da. Adibidez, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoarekin alderatuta, Zumaiako datuak makalagoak dira, bai ezagutzan, bai erabileran. Zestean %82,2k daki



euskaraz eta kaleko solasaldien %80,5 dira euskaraz. Zaurtekin alderatuta, datuak oso antzekoak dira: ezagutza %70,1, erabilera %50. Urola Kosta oso hartuta, Zumaia batz bestekoaren behetik dago: eskualdeko ezagutza %77koa da, erabilera %60koa. Eremu zabalagoetara jotzen badugu, errealitatea bestelakoa da. Gipuzkoan ezagutza %52,9koa da eta erabilera %32,7koa; EAEn ezagutza %37,4koa da eta erabilera %16,1koa; eta Euskal Herrian ezagutza %27,6koa eta erabilera %13,3koa.

Horren arabera, inguruan baditugu gu baino euskaldunagoak diren herriak, baina mapa osoa hartuta Zumaia herri oso euskaldunen artean dago, zalantzarik gabe. “Kaleko solasaldien erdia baino gehiago euskaraz izatea azpimarratzekoa da”, Belen Urangaren esanetan. Datua baino gehiago, joera da kezagarria: Zumaian behera egin duen bitartean, Urola Kostan erabilerak bi puntu egin du gora. Hurrengo neurketan gertutik zaindu beharreko kontua izango da, beraz.

### Helduen datuak dira kezagarrienak

Adin tartekak ere bereizten ditu ikerketak, eta badago zer aztertu. Haurrei dagokienez, erabilera %71,2koa da. Esanguratsuen da, ordea, beraien artean hitz egiten dutenean solasaldien ia %84 euskaraz direla. Helduekin hitz egiten dutenean



jaitsi egiten da ehunekoa. Eta hor egon daiteke ikerketa honen mahai gainean jarri duen korapilo nagusia: Zumaian, helduen artean jaitsi da, batez ere, euskararen erabilera. Eta oso nabarmen, haurrak tartean daudenean. Datu batzuk: 2000an, kalean euskaraz hitz egiten zuen helduen ehunekoa %48,9koa zen; 2007an, %46,3koa; 2012an, %42,2koa. Hamar urtean ia zazpi puntu jaitsi da. Eta bereziki kezagarria da talde

## ANTTON PEÑALBA | IRAKASLEA

# GAZTEAK EREDU



Joan dira 5 urte euskararen kaleko erabilera azkeneko aldiz neurtu zutenetik, eta berriro ere datu berriak ditugu mahai gainean. Beti bezala zer pentsatua eman dizkigute datu berri horiek. Beti bezala, galdera. Nolakoa ote gure hizkuntzaren osasun-egoera? Beti bezala botila erdi bete edo erdi hutsa. Erdi bete edo erdi hutsa zein begik ikusi.

Niri sentimendu gazi-gozoek eragin dizkirate datuok, irudi argi-ilunak. Argitasun izpiak eta itzal-uneak ikusi ditut datu horietan.

Datuok erakusten diguten errealitatea azkeneko urteetan egingako neurketek erakutsi digutenaren oso antzekoa da. Oso antzekoa. Ezin esan, beraz, ez atzera nabarmen egin dugunik, ez eta aurrera goazetik nabarmen. Gure herrian lautik ia hiru gai gara euskaraz erraz jarduteko, traba handirik gabe; baina erdian baino ez dugu erabiltzen euskara. Alde txikiak gorabehera, antzeko egoera erakutsi ziguten 2000. urtean eta 2006. urtean egindako neurketek. Baina begia datuetara gerturatuz gero eta datuei buruzko hausnarketa pausatua eginez gero, badira gogora ekartzeko moduko zenbait datu, badira azpimarratu beharreko zenbait ñabardura.

1. Gure herrian euskara ezagutzen dutenen kopurua jaitsi egin da 2006tik hona ia %3 puntu. Harrigarria, itzal-unea; izan ere, nekez erabil lezake hizkuntza ez dakienak. Zer dela eta ezagutza jaitea, herritar gutxiagok ezagutzen dugu euskara duela 6 urte baino?
2. Erabilera ere jaitsi egin da. Ez asko, baina behera egin du erabilerak, ezin ukatu. Itzal-unea hau ere, eta horrek kezkatu egin behar gaitu. Zer pentsatua eman behar digu.

Baina hemen ere begia gerturatuz gero, ikusiko dugu, erabilera jaitsi arren, badirela itzaropentsu izateko datuak ere. Bakoitzari berea omen da legea. Haurrak eta gazteak ia denak dira gai gure herrian euskaraz jarduteko. Eta, gai izateaz gain, erabili ere egiten dute euskara. Haurrak haien artean ari direnean %83 eta gazteak %70. Segi horrela ume eta gazteak! Pozgarria benetan duela 15en bat egun Zumaia Bodyboard PRO 2012 Europako Bodyboard txapelketan

Itzurungo hondartzan bizi izan genuena. Bi esatari, biak gazteak, zumaia eta euskara ederrean ehuneko handi batean. Eta tarteka espainola, portugesa, ingelesa... Noiz ikusi dugu halakorik Tourrean, Donostiako Zinemaldian, Donostiako Klasikoan? Hizkuntza aniztasuna, bai, baina gure herriko egoera aintzat hartuta. Bejondeizuela gazteak!

Eta helduok? Zenbat aldiz esan ote diegu gure seme-alabei “euskaraz egin”, “*bori ez da euskara*”, “*ea euskaraz txukun egiten duzun*”... Zenbat horrelako! Eta gu bitartean, helduok, espainol ederrean gure artean. Eta gure seme-alabak, gure herriko gazteak euskaraz zarratzarra. No edo to! *Besteentzako mediku eta beretzat barberu* dio esatera zaharrak. Gutako asko eta asko espainolez hasi ginen eta espainolez eskolatu. Eta ahaleginak eginda etorri ginen euskarara, geurea zelako, euskararik gabe Euskal Herririk ez zelako. Ahaztu ote zaizkigu horiek guztiak? Gure seme-alabak hartu beharko ditugu eredu, belarrietatik tira diezaguten nahi ez badugu. Merezia dugu errieta.

Bizi gaituen munduan gero eta hizkuntza gehiago izango ditugu inguruan. Gure euskara gero eta txikiago ikusiko dugu jasango dugun hizkuntza zaparradaren aurrean. Atzerritik etorritakoak, Interneten izango ditugun hizkuntzak, telebista kateak... Ontzi txiki bat izango dugu gure euskara hizkuntzen ozeano handian. Baina ontzi txiki eta bizi bat, gu euskaldun egingo gaituena. Gure eskuetan dugu gure ontzitxo horren bizi-iraupena. Guztion eskuetan haur, gazte eta helduen eskuetan. Ekin diezaiogun. Bete dezagun botila, hurrengoan betegoa ikus dezagun.

## Neurketaren datak

(2011ko udazkenean)

Hiru asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara (irailak 21, urriak 5 eta 19)

Hiru larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara (irailak 24, urriak 8 eta 15)

## Neurtu diren eremuak


1. ibilbidea. Erdialdea: Mari kalea, San Pedro (parrokia), Olazabal idazkaria, Harategiko kalea, Kale Nagusia, Foruen Enparantza, San Jose kalea, Odieta kalea, E. Gurrutxaga plaza, Bonifazio Etxegarai, Axular Ibiltokia, Bonbillogoikoa eta Bonbillobekoa, Bidezarreta (Jadarreko plaza), Ignacio Zuloaga plaza, Txomin Agirre kaia, Erribera kalea, eta Upela plaza.

2. ibilbidea. Amaiako plazatik Parolaldera: Amaiako plaza, Ardantzabide kalea, San Telmo kalea, Larretxo auzategia, Ondartxo plaza, Juan Belmonte kalea, Julio Beobide Ibiltokia eta Ortega y Gasset kalea.

3. ibilbidea. Basadi aldea: Mendaro marinela, Basadi auzategia, Aita Mari auzategia, Arranaitz, Aizkorri, Izaga, Victoriano Arrate, Alai auzategia, Aitzuri kalea (Puntanoeta), Estazio kalea, Patxita Etxezarreta, Gernika pasealekua, eta Kantauri plaza.




Erabileraren bilakaera adin-taldeka




Hizkuntza-gaitasuna eta erabilera orokorra



Haurren presentziaren eraginaren bilakaera



Erabilera zonaldeka



## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurtegrunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



## BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943861700



SAGARDO EKOLOJIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097  
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet



DIGITAL+



## ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045



**ERROTA**  
ORIL-OKINDEGIA  
SANTILLO AUZOAN, 32  
20750 ZUMAILA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
errotat@errotta-okindegia.com

## ERTZ INFORMATIKA

Portatila  
konpontzeko  
zerbitzu berria

Eskatu sarekontua  
konpromisorik gabe.  
**DOAN**



Beheko plaza

tel./faxa: 943 143 395



PAPER diseinu grafikoak

Roberto Gutierrez

696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

## Galdona



burdindegia

Mendara marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

## GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



**GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia

tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



kafetegia

Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181



## GOIKO TABERNA

Erribera, 9

tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

## Goldan Gate

Institute  
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, beheka  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net

# HELDUON ERRONKA



2011ko neurketaren arabera haurrak (2-14 urte) eta gazteak (15-24 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%71,2 eta %70,9 hurrenez hurren). Baina, haurren artean euskararen kale erabilerari dagokionez, lehen azterketa batean oso datu positiboa dirudiena, kezka iturri suertatzen da, haurren erabilera gorabeheratsua izan baita azken 10 urteko epealdian.

Honela, 2000-2006 tartean gora egin zuen kale erabilerak, %72,4tik %80,2ra, eta hortik 2011ra, berriz, behera egin du, %71,2ra iritsi arte; hau da, 9 puntu behera egin du euskararen erabilerak. Haurren artean euskararen erabilerak goia jo ote du kalean? Jaitsiera kezagarri honen kontrapuntu gisa, datu baidakor bezala aipatu behar da haurrak bakarrik direnean (nagusirik gabe) beren artean erabilera % 83,9koa dela. Beraz, garbi ikusten da helduek, batez ere gurasoek, izugarritzko eragina dutela haurren euskararen erabileran.

Honen harira, haurren presentziaren eragina eta bilakaera kontuan izateko beste aldagaia da, egin diren hainbat neurketen arabera haurrak tartean egotean euskararen erabilera nabarmen

igotzen dela baieztatu ahal izan baita. Honela, haurrik tartean ez denean erabilera 2006. urtean %40,8koa izan zen Zumaiako kaleetan, eta 2011koan %41,0koa izan da. Haurrak presente daudenean, berriz, neurtutako erabilera altuagoa izan da (%63,8), baina 2006ko datuekin alderatuz gero ia 13 puntu jaitsi da, orduan neurtu zen erabilera %76koa izan baitzen. Erabilerak nabarmen egiten du gora haurrek zuzenean elkarriketan parte hartzen dutenean; bai haurren arteko elkarriketetan, bai haurrek zuzenean nagusiekin hitz egiten dutenean.

Kontuan izanik Zumaiako eskola eta ikastetxeetan irakaskuntza guztia euskaraz eskaintzen eta ematen dela, ez da aski seme-alabak D ereduko ereduari matrikulatzea. Garbi dago euskararen erabilera eta transmisioan funtsezko eragina dutela helduek, hau da, gurasoek. Beraz, haurrak eta gazteak euskalduntzeko eta euskara sustatzeko egin den eta egiten ari den ahallegin izugarria eta emaitzak ematen ari dela ebaluatutik, agian garaia da beste pauso bat emateko: helduen artean euskararen ezagutzan eta erabileran eragiteko helburuak, egiturak, ekintzak eta baliabideak finkatu, landu eta bideratzea, Zumaiako Biziberritzeko Plan Nagusiaren barne, aintzat hartuta azken 11 urteotan euskararen erabilerak behera egin duela helduen eta adinekoen artean.

**Zer ikusi, hura ikasi;** kasu honetan, zein hizkuntza entzun, komunikatzeko hura erabiliko dute gure herriko haurrek. Hona hemen helduon erronka.

47. DURANGOKO EUSKAL  
LIBURU ETA DISKO **AZOKA**

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

**GOROSTI BODEGA**  
 ELORRIAGA AUZOA, DEBA, GIPUZKOA  
 Tfno: 670408439 Juan M<sup>o</sup> Echave  
 692605223 Isabel Etxaniz

**flysch**  
 txakolina

*Geluriako Txakolina*  
 DENOMINACION DE ORIGEN



*Cure-Txokoa*  
 aberna



Upela plaza, 4  
 20750 Zumaiia  
 Tel.: 943 86 09 70

English School  
**Harvest**

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis      tel. 943 143 334

**API**  
**Ibaitain**  
 inmobiliaria

Ricardo Azkue  
 API 399

Txomin Agirre 4, behea  
 tel. 943 862 651  
 faxa 943862748

rjazcue@euskalnet.net

**ilarzi**



Alai auzategia, 2  
 Tel. 943 24 50 20

**INPERNUPE**  
**ELKARTEA**



Erribera kalea 16.      Tel. 943 861 523

**IRUITZ**



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAJA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 860 760

**ITSASKI**  
**SUPERMERKATUA**

Urumea kalea z.g.      tel. 943 143 058

**Itzurun, S.L.**  
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotaatuak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 behea  
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

**ORRAZTEGI**  
**ZUMAI**



943 862 083

**JUARISTI**  
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
 Eguneko menua  
 Jangela klimatizatua

Basod, auzategia, 10      tel. 943 861 853

**Xala**

Pintxoak eta  
 otartekoak



Txomin Agirre kala, 8

**KABI**      Patata Etxezarreta, 15  
 943 117 427

**TABERNA**



**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
 Aluminiozko leihoak ZTH-rekin,  
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20      Tel./faxa: 943860320

**kalari**



Upela plaza, 8  
 tel. 943 862 517

**KANTAU**  
**TABERNA**

Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatuak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840

**Kresala**  
 Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869



berean helduak eta haurrak nahasirik daudenean, helduen %37k baino ez duela euskaraz egiten. Datu deigarria da, ez baita ohiko joera. Klusterrean ez dute oraindik azalpenik, baina ondo aztertzeko kontua da helduen artean gertatu den jaitsiera, eta zergatik haurrak tartean daudenean are eta gutxiago egiten duten euskaraz.

Belen Urangak azaldu zuenez, oro har helduen zenbait belaunaldik ahalegin handia egin dutela aitortu eta gero, beharbada Zumaian belarrietatik tira beharko litzaike batzuei. Bi fenomeno ikusten ditu hor Belenek: 50 urtetik gorako heldu batzuei azken pausoa ematea falta izan zaie euskararen erabileran; 35-50 urte bitartekoan artean, berriz, erlaxazio moduko bat antzematen du. Puntu honi dagokionez, Alondegiko ekitaldian aipatu zen helduei dagokien adin tartea (25-64 urte) zaku zabalegia dela eta horrek, ziurrenik, ondorioak ateratzea eta neurriak hartzea zailtzen duela. Hurrengo azterketetan kontuan hartuko da eta agian bitan zatitu beharko da, zerikusi gutxi baitute 25-30 urteko gazteen errealitateak eta 50etik gorako helduenak.

### Gazteen erabilera, goraiatzekoa

Beste muturrean dago gazteen datua. Ikaragarri ona: 15 eta 24 urte arteko gazteen kaleko elkarriketen %71 euskaraz dira (euskara gaitasuna %82,8koa da). Ikusgarria da azken hamar urteotako bilakaera: 2000an solasaldien %54 ziren euskaraz; 2007an %65 eta 2012an %71. Hamar urtean 17 puntu igo da gazteen erabilera. Lehen aipatu dugu Zarautzek oso erabilera parekoa daukala; bada, gazteen artean, ez dago alderatzerik: Zarauzko gazteen erabilera %53,5ekoa da. Gazteen datua da, zalantzarik gabe, ikerketa honek eman duen emaitzarik pozgarriena, eta aurkezpenean beharrezkotzat jo zen gazteei aitortzea egindako ahalegina.

## Gazteen datua da, zalantzarik gabe, ikerketa honek eman duen emaitzarik pozgarriena

### Haurretan nolabaiteko jaitsiera

Duela bost urteko datuekin alderatuta, haurren erabilera dezente jaitsi dela ikus daiteke (%80tik %71ra), baina Belen Urangak horren garrantzia bere neurrira ekarri nahi izan zuen; helduen taldeak eragindako jaitsiera dela uste du, haurren arteko erabilera %83koa delako.

Adinaren arabera erabilera orokorrari dagokionez, azken neurketak Zumaian erakutsi duen berezitasuna da bi mailako eskailera moduko bat

dela grafikoa: goiko mailan haurrak eta gazteak, eta behekoan helduak eta adinekoak. Gehienetan grafikoa aldapa moduko bat izan ohi da, haurrak gorenean eta adinak gora egin ahala erabilera beherago.

### Sexuen arabera alderik ez

2011ko neurketan ez da alderik ikusi gizonen eta emakumezkoen erabilerari dagokionez (%52,8 biak). 2006koan gizonen erabilera 2,5 puntu handiagoa izan zen emakumezkoena baino (%59,4 eta %56,9).

### Eta bost urte barru zer?

Hasteko, ikusi beharko da ea datu orokorrak zer joera erakusten duen, beherakoa, eustekoa edo gorakoa. Helduen erabilera bereziki aztertu beharko da, ahal dela azpitaldeak berezita, bilakaera nola doan ikusteko. Gazteen erabilerak bere horretan jarraitzen duen ikusiko dugu orduan, oraingo datu onak ez duelako ezer bermatzen: toki askotan ikusten da tartean gaztelania nola txertatzen duten (*euskarñolez* edo *code switching* delakoa eginez) eta nola epe laburrean euskarak gal ditzaketen esparru batzuk (aisialdia, telebista, Internet...).

Bien bitartean, Belen Urangak esan zuen bezala: “ez dago erlaxatzeko motiborik”. ■



# OLATUAREN APARREAN

Europako Zirkuituko proba bat Zumaiara ekartzeko sekulako ahalegina egin dute herriko bodyboardzaleek, eta txalotzekoa da emaitza. Txapelketa bikain antolatuta, puntako bodyboardlariak bildu dira Itzurunen. Irudi gogoangarriak utzi dizkigute.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA






## Txapeldunaren sena

Pierre Louis Costesek (Vichy, Frantzia, 1990) estreinatu du Zumaiako palmaresa. Ez da aukera txarrena: iaz munduko txapelketa irabazi zuen (IBA World Tour), olatu handietan zein txikietan artista dela erakutsiz. Zumaian demostratu du txapeldun sena duela: finaleko lehen bi olatuak aukeratzen bete-betean asmatu eta aukerarik gabe utzi zituen aurka-

riak. “Euskal Herrian txapelketa bat irabazten dudan lehen aldia da, eta oso pozik nago. European bodyboardak maila handia du eta merezi dugu horrelako proba bat. Eskerrik asko Zumaiako herriari, antolatzaileei eta herriko bodyboardlariei txapelketa handi hau antolatzeagatik. Datorren urtean berriro ikusiko dugu elkar”.





## Alex & Alex

Alex Urangak mundua hankaz gora jarri zuen iaz Munduko Zirkuituko proba irabazi zuenean Reunion Irlan. Orduz gerotik munduko onenekin ari da lehiatzen. Munduko sailkapenean 13. postuan dago eta urtea 16 onenen artean amaitzea da erronka. “Guretzat oso garrantzitsua izan da txapelketa hau antolatzea. Zumaian sekulako indarra du bodyboardak eta maila goreneko aurkariekin lehiatzeko aukera izan dute herriko gazteek”. Bigarren postuan amaitu zuen Urangak.

Alex Odriozolak bazuen txapelketa irabazteko itxaropena. Oraindik 18 urte baino ez ditu, baina aurten erakutsi du dagoeneko onenekin lehiatzeko maila duela. Junior mailako Europako txapelketa irabazi du, eta Espainiako txapelketa nagusia. Zumaian hirugarren izan da, Costes eta Urangaren atzetik. Munduko Zirkuituan lehiatzeko dohainak ditu, ezbairik gabe. “Finalean egindako lana ez da nahikoa izan; onenei irabaztea ez da erraza. Baina oso pozik nago lortutakoarekin. Orain Marokoko eta Kanariar Irletako probetara joan nahiko nuke, baina ez dakit diruak denerako emango didan”.





# Galdona

industria

**denda:**

Mendaro marinela, 1  
tel.: 943 143 346

**biltegia:**

Jose M<sup>a</sup> Korta Industriegunea  
Pab. A6.1, 2-5 mod.  
tel.: 943 861 117  
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako  
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak





## Infernuan ere gozamina

Eguraldi makurrak gogotik zaildu zituen lanerako baldintzak lehen jardunaldian. Maniobra distiratsu gutxi egun hartan; hala ere, nahikoa zen begi aurreko ikusmira ikuslea txunditzeko: zerrua beltz, ipar haizea bizi, olatuak labarretan gora harro...Negua Itzurunen. Eta han, agertoki beldurgarri hartan, bodyboardlariak,

*kortxoazko* taula lirainei helduta, jolaserako baino gehiago zakarkerietarako zegoen itsasoarekin dantza egin nahian. Igandeko finalerako ostadarrak eguraldi atseginagoa eta olatu txukunagoak ekarri zituen. Orduan bai, ikusi genituen Itzurungo izurdeak maniobra harrigarriak egiten.





**kuttun**  
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



**malaur**

**MAITE**  
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



**Maluta**  
jatekxoa • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**MENDI - ONDO** C.B.  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel. 943 537 901

**Nikol**  **Enea**

TABERNA

Amaiako plaza



**NOLA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

636 867 812 (Zumaia)  
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943 861 363  
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3 blokea tel. 943 861 691



ETXE GINTZA  
**OLIDEN**  
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranitz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbikirolak@euskalnet.net



**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoikia, 1  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

**OTEZURI**  
KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

Marie **TOURE** | Dantzaria

# ERRITMOA ERRAIETAN DARAMAN EMAKUMEA

Mendebaldeko Afrikako Ginea Konakryn jaioa, mundu osoan aritu da dantza afrikarren ikuskizunak eta ikastaroak ematen. Orain bi urte Zumaiara etorri zen bizitzera eta dagoeneko euskalduntzat jotzen du bere burua. Eratu berria den Nimba elkarteko lehendakaria da eta asteazkenero dantza afrikarren ikastaroak ematen ditu Maria eta Jose ikastetxean.

ERRETRATUA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA


## TTAKUNPATIK NIMBARA

Orain artean Ttakunpa taldeak antolatzen zituen dantza afrikarren inguruko ekitaldiak. Baina Ttakunpa orain desagertu da. “Taldea osatzen genuen jendea aldatzen joan zen eta denborarekin zaharkituta geratu zen. Ikusten genuen berri beharra zegoela”, dio Anne Agirrek, elkarte berriko lehendakariordeak.

Nimba izena jarri diote elkarte berriari. “Ginea Konakryko sinbolo nazionala da Nimba. Herrialde osoan ikus daitekeen emakume baten figura bat da; izan ere, Susu etniaren hizkuntzan ‘ginea’ hitzak ‘emakumea’ esan nahi du. Herrialde horrekin harreman oso estua dugunez, zer hobeto beraien ikur nagusia den izenarekin bataiatzea baino”.

Elkarte berriak Mendebaldeko Afrikako eta bereziki Ginea Konakryko kultura ezagutaraztea du helburu, “ikastaro, dantza eta ikuskizunen bitartez”. Hurrengo pausoa beraien eskaintza beste herrietara zabaltzea dute. “Baina ez ikastaroak bakarrik. Kontzertuak, kalejirak, animazioak eta dantza eta perkusio afrikarreko ikuskizunak eskaintzen ditugu”.

Nimbako kideekin harremanetan jartzeko, 688658240 edo 630611160 telefono zenbakietara deitu daiteke, edo [marietoure@gmail.com](mailto:marietoure@gmail.com) helbidera idatzi.



Danborren soinua handitzen doa eta gorputza berotze aldeira besoak mugitzen hasi da Marie. Bizkarrezurra ondoren. Aldaka geroago. Ikastaroa egiten ari diren lagunek bere mugimenduak errepikatzen dituzte. Danborren erritmoa azkartzten den heinean, Marie-ren mugimenduek ere beste abiadura azkarragoa eta konplexutasun handiagoa hartzen dute. Bistan da dantza egiten gustura dagoela: irribarrea sumatzen zaio aurpegian eta begietan. Urtebete pasa duen Mikel semea danborra jotzen ikusteak ere lagunduko du. Nabari da erritmoaren geneak pasa dizkiola semetxoari.

Dantza erraieran daraman emakumea da Marie Toure. Orain 35 urte jaio zen Gineako Errepublikako hiriburuan, Konakryn. Txikitatik jaso zuen dantzarako deia. “Betidanik gustatu zait dantzatzea. Eskolara bidean jendea dantzatzen ikusten nuen eta haiei begira geratzen nintzen. Gero eta denbora gehiago pasatzen nuen dantzatzen eta azkenean eskolara joateari utzi nion”. Familiatik datorkio dantzarako grina. “Nire aita dantzaria zen eta osaba ere bai. Gure herrian lehen behartu egiten zuten jendea dantza egitera. Etxerako janaria eta beharrezkoak ziren beste gai batzuk lortzeko modu bat zen. Denborarekin ohiturak aldatzen joan dira eta orain ez zaituzte derrigortzen dantzatzera. Nire kasuan, ni naiz etxean dantza egiten duen bakarra; nire hiru ahizpei ez zaie interesatu”.

Eguneroko lanak fruituak eman zituen eta 19 urte zi-

tuela Konakryko dantza konpainia batean sartzeko aukera izan zuen. “Konpainia hartako dantzarien entseguak ikusten egoten nintzen. Behin nesketako bat ez zen agertu eta haren lekua beteko nuela esan nion zuzendariari. Hark harrituta begiratu zidan eta mugimenduak ez nekizkiela eta gazteegia nintzela aurpegiratu zidan”. Proba egiteko eskatu zion Mariek eta denbora gutxira konpainiako partaide zen.

Marie ballet hitza erabiltzen badu ere, Afrikako konpainiek eskaintzen duten dantza ikuskizunek ez dute zerikusirik hemen ezagutzen den ballet klasikoarekin; kantua, zuzeneko musika eta dantza estilo desberdinak uztartzen dituzte. Bere lanaren berri Konakryn zabalduz joan zen eta pixkanaka beste dantza konpainia batzuk ere ate joka zituen. “Kontratu sinatuta nuen talde batekin, baina beste batean dantza egiteko aukera eman zidaten”. Hari esker mundua ezagutzeko aukera izan zuen. “20 urte nituen bidaiatzen hasi nintzenez. Dantza konpainiarekin toki askotan egon naiz: Japonian, Singapurren, Afrika eta Amerika osoan...”. Alaskara egindako bidaia du gogoan. “Erabat desberdina zen; ez nuen inoiz halakorik ikusi. Dena zegoen izoztuta. Hasieran hegazkin handi batean joan ginen; gero, beste abioi txikiago batean; eta, amaitzeko, autobusean eramanez gintuzten ikuskizuna eman behar genuen lekura. Hasieran jendea hotz samarra zegoen, baina berotzen joan ziren”. Dantzarekin mundu osoa bisitatu duela dio: “Hiru pasaporte bete ditut herrialdeetako seiluekin; hainbeste bidaia izan dira!”



Ikuskizunak antzokietan ematen zituzten, baina dantza erakustaldiak beste leku batzuetan emateko proposamenak ere jasotzen zituzten: “Espetxeetan, ospitaleetan... halako lekuetara ere eramaten genituen gure dantzak”.

Bere artearen berri Gineako mugetatik kanpo zabaltzen joan zen eta Europan dantza afrikarren ikastaroak ematen hasi zen. Haietako batean, Gironan (Katalunian) egin zuen lehen aldiz topo Anne Agirrerekin. “Dantza afrikarren irakasle on baten bila nengil eta Gironan ikusi nuenean izan zen... wahl!”, dio Ttakunpa taldeko kide ohiak. Harreman luze baten hasiera izan zen, eta hari esker hainbat ikastaro eman ditu Mariék Zumaian eta Euskal Herriko zenbait herritan. “Frantzian edo beste herrialde batean esaten dudanean Marie Tourek ikastaroak ematen dituela Zumaian edo beste herriren batean, harrিতa begiratzen didate. Dantza afrikarretan izen handia du eta guretzat ohore handia da bera gurekin egotea”, gaineratu du. Harreman estua dute bi emakumeek. “Zaragozan bizi nintzen eta Euskal Herrian ikastaroak eman behar nituen Andoni [Txintxilla] eta Anneren etxean egoten nintzen. Aste erdia Zaragozan egiten nuen eta beste erdia Zumaian”.

Azken zazpi urteak espainiar Estatuan igaro ditu. Dena, baina, ez da arrosa kolorekoa izan. Mikel semearen aita eta gaur egun senarra duenarekin Zaragozan bizi zen orain urte batzuk. Behin, 2008an, atxilotu egin zuen poliziak paperik ez zuelako. “Espainian hiru hilabetetan egoteko bisatua besterik ez zuen. Epe hori pasata zegoela, ikuskizun bat emateko deitu ziguten Leonetik, eta Zaragozan autobusa hartzeko zain zegoela poliziak atxilotu egin zuen”, dio Annek. “Nik ez nuen ezer egin. Autobusa hartzeko zain nengoen eta polizia etorri zitzaidan galdezka ea zer egiten nuen han. Esan nien Leonera joan behar nuela ikuskizun bat ematera, eta paperik ez nuenez, polizia etxera eraman ninduten. Ziega batean sartu ninduten eta han egon nintzen hama bi orduetan ez zidaten ez edaririk ez janaririk eman. Telefonoz deitzen ere ez zidaten utzi. Egun batzuk lehenago Zaragozan bertan ikuskizun bat eskaini nuen, eta han ikusle izan zen polizia batek ziegan ikusi ninduen eta galdezka hasi zen ea zer egiten nuen atxilotuta, artista bat nintzela-eta”. Denbora pasa bada ere, oraindik haserrea eta

samina sumatzen da bere hitzetan. “Behin eta berriro esan nien ez nintzela kriminal bat. Atera nindutenean esan nien ez nuela inoiz ahaztuko hura. Umilazioa izan zen niretzat. Beste inon ez zait halakorik gertatu”, dio malkoak lehortzen dituen bitartean.

Gaur egun Mikel semearen aitarekin ezkondu da dago eta Europar Batasuneko biztanlea da. Hala ere, urtean pare bat hilabete jaioterrian igarotzen ditu. “Bi alaba ditut han eta urtero joaten naiz Gineara. Bide batez, materiala eramaten dut, behar dutenei laguntzeko”.

Orain bi urte, haurdun zegoela, hartu zuen Zumaian kartzeko erabakia, bere lagunen herri berean. “Oso gustura nago hemen. Askotan esaten dut badakigula non sortu garen, baina ez dakigula non amaituko den gure bizitza. Gaur egun, Zumaian nago eta oso gustura, gainera. Esan daiteke hemengo beste bat naizela. Ni euskalduna naiz orain!”.

Bertako kulturaren murgiltzeko aukerak ez ditu alde batera uzten. “Euskara ulertu, ulertzen dut, baina oraindik ez naiz gai hitz egiteko”. Bat baino gehiago harrিতa geratu zen pasa den Euskal Jai egunean Inpernupeko Joaldunen taldean joareak eramaten ikusi zutenean. “Lanetik atera nintzenean soinu hori entzun nuen eta entsegua egiten ari ziren lekura joan nintzen. Ikusi nuen zertan ari ziren eta probatu nahi nuela esan nien. Ni artista bat naiz, eta bizi naizen lekuetako kulturaz blai egitea gustatzen zait. Horregatik, zerbait egiten denean deitzeko eskatzen dut, eta posible bada parte hartuko dut”.

Orain artean ikastaro trinkoak eman ditu Zumaian, baina aurreko kurtsu osoko ikastaroa emateko apustua egin zuen. Torreberri bete-beteta dagoenez, Maria eta Jose ikastetxeko areto bat alokatu dute ikastaroak emateko. Saioak asteazkenetan ematen dira, 19:00etan. Zuzeneko perkusio musikarekin izaten direla azpimarratu du. Baina nolakoak gara euskaldunak dantza afrikarretarako? “Badaude dantza ederki egiten dutenak, baina kontua da lotsa galtzea. Ikasleak irribarre batekin hartzen ditut eta pixkanaka mugitzen hasten gara. Gutxika dantzan sartzen joaten dira eta lotsa galtzen dute”. Ikastaroan parte hartzen dutenek al daketa sumatzen dutela gaineratu du, eta ez dantza egiterakoan bakarrik. “Parte hartuko bazenu, ibiltzeko era ere aldatuko litzaizuke”. ■



“Gure herrian lehen behartu egiten zuten jendea dantza egitera. Etxerako janaria eta beharrezkoak ziren beste gai batzuk lortzeko modu bat zen”

**La Prima Vera**  
pizzeria



Alta Mari, 17, behea  
tel. 943 247 011

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

**RUBIO** Pinturak

PINTURAK,  
ARTE EDERRAK,  
ALFONBRAK,  
DROGERIA,  
PINTATURIKO PAPERAK,  
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788  
Erribera 1 behea

**SESMA**  
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206  
www.entrenadorpersonalesma.com  
josebasesma14@gmail.com

**Talaxia**  
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**TALAI-PE**  
jatetxea-erretegia



Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

**Tapaia**  
Taberna



Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

**TTAKUN TABERNA**



Izustarri, 3  
tel. 943 865 289

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekook  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondok (Modillo)  
Salxitzak, oilaskok...  
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

**TXORTENA  
JATETXEA**

Eguneko menua, Asteburukoa,  
Parrilla, Wifi gunea,  
Plater konbinatuak,  
Kazueltak, Errazioak

Oikiako plaza 24.  
Tel. 943 865 315  
OIKIA

**Txingurri**  
loradenda



Loradenda Lorazaintza  
erribera, 1 tel. 943 860 778  
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA



Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

**Urola 2000, s.l.**  
Aroztegia

\*Erekitzen akabera eta dekorazioa  
\*Baserrien zaharberritzea  
\*Enbarkazio konponketa  
\*Ate, zokalo, tarima eta pertsianak  
\*Armatu enpoltratuaren aurrealdea  
\*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323

**Xanti**  
Xanti Osa  
Arantxa Azkue



Amalako plaza, 13  
tel. 943 860 914  
657 794 153  
Denda: tel./faxa 943 862 385

**Zalla**  
mizena



• plater konbinatuak  
• ogitartekook  
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

**ZUMAIA**  
AUTO-ESKOLA



• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua  
• Praktika eta azterketak Azpeitian  
• GURE HELBURUA:  
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

**EuroTaller**  
ZUMAIA MOTOR, S.L.



José Rey Alfaro  
Gerente

Santxo Auzoa, 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161  
e-mail: zumalamotor@telefonica.net

**Zumaia optika**



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

**Euskadin 507 establezimenduk daukate Kalitate Turistikoarekin Konpromezu Diploma, eta urte amaierarako 800 izango dira. Arlo horretan, Praktika egokien programaren helburua zerbitzuen kudeaketa hobetzea da. Aldi berean, bereziki negozio txikiiei zuzenduriko programa da, Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiriak baino eskakizun maila apalagoa du, baina epe luzerako konpromiso batekin. "Kalitate turistikoarekin konpromisoa" ezaugarri-bereizgarriak formazio konpromisoa errekonozitzen du eta dedikazio eta zehaztasuna establezimenduen kudeaketan kalitatearen hobekuntza planen bidez. Bere helburu nagusia bezeroarekiko zerbitzuan hobekuntza etengabea da.**



## ALGORRI INTERPRETazio ZENTROA "BARNE FORMAZIOAREKIN JARRAITUKO DUGU, KALITATEAREN INGURUAN EGUNEAN MANTENTZEKO HELBURUAREKIN"



### **Zeintzuk izan ziren programa honetan partehartzeko arrazoiak?**

Programaren ezaugarriak aurrez ezagutzen genituen eta zentroaren kudeaketarako tresna baliagarria izanik, Algorrin ezartzea adostu zen Zumaiaiko Udalarekin. Aurrerantzean bestelako kalitate agiriren bat lortzeko asmoa egongo balitz, programa honen eskakizunak oinarri sendoa izango liriateke.

### **Zer abantaila ekarri dizkizue diplomak?**

Zentroaren kudeaketarekin loturiko zeregin guztiak araupetu dira, eskaintako zerbitzuaren kalitatea bermatzeko helburuarekin.

### **Zer hobekuntza izan dira barne funtzio-namenduan, kudeaketan eta azpiegitura gaietan?**

Zentroaren antolaketan aldaketa nabarmenik ez da egon, baina kudeaketaren arloan aurreko urteetan egindako lanaren jarraipena txertatu da. Horrela, zentroak luzatutako proposamenen, edo aurrera eramán diren hobekuntzen jarraipen historikoa egiten da. Azpiegituaren inguruan, hobetu beharreko arloak definitu ondoren, baliabideak areagotu eta eguneratzeko egitasmoa plazaratu da.

### **Bezeroaren poztasun mailan zer hobekuntzek eragin dute zuzenean?**

Bisitak egiteko orduan eskaintzen diren baliabideak (fitxak, laginak, prismatikoak...), web

gunearen berrikuntza eta sare sozialei esker lorturiko parte-hartzea.

### **Nola zuzenduko zinateke zu sektore turistikoko profesionalari Kalitate Turistikoaren konpromisoa bereizgarria ezartzeko? Zer esango zenieke?**

Laguntza jasoko dutela eta eskakizunak lortzeko moduko epeak eta zerginak zehazten direla esango genieke.

### **Turismo arloko profesionali gomendatuko al zenieke Kalitate Turistikoaren konpromezua diploma ezartzea?**

Bai, aldaketa batzuk eskatzen ditu baina emaitza merezi du.

### **Kalitate Turistikoaren Diplomak zure erakundearen posizionamendu lehiakorrago bat ahalbidetzen duela uste al duzu?**

Bai, bezeroek gero eta arreta gehiago jartzen dute horrelako kontutuan, exigentzi maila handiagoa baitago.

### **Kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke?**

Oinarritzko gauzak egiten genituen programan sartu aurretik baina manuala idaztean detailak lotu egin dira: inbentarioak, stock-aren jarraipena, kortesiazko formulak.

### **Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?**

Barne formazioarekin jarraituko dugu, kalitatearen inguruan egunean mantentzeko helburuarekin.

### **Ze abantaila eskeintzen dizkio zure establezimenduari helmuga bereko beste batzuekin elkarlanean jarduteak? (jatetxeak, ostatuak, turismo aktiboko enpresak, interpretazio zentruak, turismo bulegoak...)**

Bezeroari eskaintza hobea eskaini ahal izatea.

### **Helmugako establezimenduen artean sinergiari garatu ahal duzue? Ze motatako sinergiak?**

Zumaiaiko ostatuetatik datozen bezeroek deskontuak dituzte. Ate irekiak antolatu dira inguruko establezimenduek Algorriko eskaintza ezagutu ahal izateko.

### **Basquetourren eta Jaurilaritzaren aldetik, eskualdeko lehiakortasun teknikoaren bidez jasotako laguntza positiboki baloratuko al zenuke? Ze aspektutan?**

Oso ondo baloratzen dugu, egin beharreko bidean aholkularitza eta etengabeko laguntza eskaini digulako.

Eusko Jaurilaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, enpresariari behar dituzten tresnak eta laguntzak ematen dizkiete beraien erakundeak lehiakorragoak izan daitezten ondorengo programei esker:

- Praktika egokien programa: honen helburua enpresariari "profesionalizazioa" hobetzea eta helmuga konzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromezua diploma duten 507 establezimendu daude.
- Q Kalitate Turistikoaren programa: bezeroaren itxaropenak betetzea eta gogobetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 268 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiria.
- Bikaintasun ereduaren programa: erakundeek kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Ereditu honetan partehartzeten diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

**Ezari Kalitate Turistikoarekin Konpromisoa bereizgarria zure establezimenduan!**

**94 607 75 94**

**[www.basquetour.net](http://www.basquetour.net)  
info@basquetour.net**


# SANTO TOMAS *eguneko* zozketa berezia

3 otar opariz beteta!!



Ezagutu sariak:

[www.zumartian.com](http://www.zumartian.com)-en eta

 ZumaiakoMerkatariOstalariElkartea



zumartian

*Erosketa bat egiten duzun  
bakitzean parte hartu dezkezu!*  
Zozketa Santo Tomas egunean egingo da



Zumaiako Udala



## Egin konposta elkarlanean, auzolanean

**Auzo konposta egin nahi?**

Eman izena eta etorri  
bileretara

Informazio gehiago: [auzokonposta@wordpress.com](mailto:auzokonposta@wordpress.com) • 616 226 050

# AZAROA-ABENDUA

## EUSKARAREN ASTEA

### Azaroaren 29tik abenduaren 3ra Osteguna, 29

19:00etan, Alondegia Kultur Etxeko Oxford aretoan, Julene Azpeitia XXV. ipuin lehiaketako sari banaketa, eta ondoren, Miren Agur Meaberen "Bitsa eskuetan" emanaldi musikatu. Aurrez, bazkalondoan hasita, irakurketa saio berezi bat egongo da aretoan bertan.

### Ostirala, 30

22:00etan Aita Mari zineman, GARTXOT filma.

### Larunbata, 1

Euskararen asteko ekitaldiak: Zumaian saltaka, kantu kalejira, erromeria...

### Igandea, 2

Arratsaldean, Aita Mari zineman haurrentzako filma euskaraz.

## AZAROA

### Ostirala, 9

19:00etan Foronda kultur etxean, GUNE taldearen otoitz-meditazio saioa.

20:00etan Alondegia kultur etxean, Klarinete Maratoiko kontzertua: KAFE MUSIKALA.

### Larunbata, 10

18:00etan Komentuan, Klarinete Maratoiko Lehiaketa-kontzertua.

### Igandea, 11

12:30ean Maria eta Jose aretoan, Klarinete Maratoiari amaiera emateko ZUMBen kontzertua.

### Osteguna, 15

22:00etan Aita Mari aretoan, BARRURA BEGIRATZEKO LEIHOAK filma.

### Ostirala, 16

22:00etan Aita Marin, HUTSA antzerki taldearen "Publikoari gorroto" antzezlan.

### Larunbata, 17

20:00etan Parrokian, Organo kontzertua Esteban Elizondoren eskutik.

### Igandea, 18

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: La Baldufa taldearen "Déjà vu zirkoa" antzezlan.

### Asteazkena, 21

18:30ean Maria eta Joseko aretoan, Musika Eskolaren Xixili eguneko jaialdia.

### Osteguna, 22

17:30ean haur liburutegian, Maite Francorekin ipuin kontaketa: "Mundipurdiko ipuinak".

20:00etan Oxford aretoan, San Pedro abesbatzaren Xixili eguneko kontzertua.

22:00etan Aita Marin, zine forum: El topo (Tomas Alfredson).

### Ostirala, 23

19:00etan Foronda kultur etxean, GUNE taldearen solasaldia: "Acogida e integración social de inmigrantes en el Centro Ellacuría" - Xabier Zabalo.

### Larunbata, 24

19:00etan Komentuan, Xixili egunaren aitzakian, Zumaia Musika Bandaren kontzertua: GURIDI MONOGRAFIKOA.

### Igandea, 25

Xixili eguneko gitarauaren barruan, meza nagusia Beheko Plaza abesbatzak bestua. Jarraian, abesbatzaren kalejira herriguneko kaleetan zehar.

## ABENDUA

### Ostirala, 14

22:00etan Aita Marin, antzerkia "Goenkale"

### Igandea, 16

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia BEHIBI'S taldearen "MURen bidaia"

**21etik hasita**, Gabonetako programazio berezia.

### Larunbata, 22

19:00etan Maria eta Jose aretoan, Zumaia Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Gonbidatua, Astindu dantza elkarte.



## MUNDIPURDIKO IPUINAK

**Abenduak 22, osteguna**

Haur liburutegian, Maite Francorekin ipuin kontaketa

**TXALAPARTA**  
OPARIAK

Angelu Sorra, 2  
30750 ZUMAILA  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 143 089  
faxa. 943 130 637

**Z**  
Zumaia Hotela  
Jatekua  
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

Egin zaituzte  
**BALEIKEKO**  
bazkide

**BALEIKE**  
GERRAKO BOST  
DESAGERTU  
ALRITU DITUZTE

Josu **MANZISIDOR**

# Nagoenean

Doinua: "Urzo xuri politt bat"

**1.**

**N**agoenean kezkaz,  
zalantzeta ero  
mendi buelta ematera  
noa arratsero  
ilunabar gorriek  
eraginda edo  
askozaz lasaiago  
sentitzen naiz gero.

**2.**

**A**laitasunez lehertu  
zorian banago  
Erribera kalea  
ni joan zai dago  
Lagunei adarra jo,  
hartu mila trago  
egunsentia baino  
askoz haratago.

**3.**

**T**a nahi badut burua  
ideiekin bete  
hurbil ditut Xalbador  
Laboa ta Lete.  
Beren kankak entzunaz  
loak hartu arte.  
Ametsetan egiten  
laguntzen didate.



**4.**

**I**raganak beti du  
zerbait jakingarri.  
Ba atzera begira  
behar denean jarri.  
Gizon baten itzala  
agertzen zait sarri.  
Hamabi urte hauen  
tristuren pizgarri.

**5.**

**E**torkizunaz egin  
behar badut galde  
nire txoko lasaira  
egiten dut alde.  
Han galdezka hasten naiz  
haizearen alde,  
ta erantzun guztien  
atzean zu zaude.





FAGOR  
kotsumo  
baxuko  
berogailuak

650w

149€

1.000w

179€

1.250w

219€

1.500w

249€



399€  
3 x 133€

TEKA DUETTO 531  
bitrozeramika + labea  
\* Etxean muntatuta



849€  
3 x 283€

BALAY \* Etxean muntatuta  
indukzioa (3EB915) +  
labe pirolotikoa (3HB557XPE)

**3** hilabete  
interesik  
gabe

# Ez pentsatu gehiago hartu aurrea gabonei!



BOSCH  
lehorgailua  
WTE 86111 EE  
• 8 kg  
• Kondentsazioa

399€  
3 x 133€



AEG  
lehorgailua  
T75470AH  
• Kontsumo baxua  
• Kondentsazioa

699€  
3 x 233€



**ENDAÑETA ZUMAIA  
ELEKTROGAILUAK**  
Erribera, 8 Tel. 943 861 694  
www.endanetazumaia.com

**egoratu!**  
*Endañeta: aurrena arreta,  
gero salmenta.*



*Hobeto sentituko zara!*

Odontologia Orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak  
Periodontzia  
Protesia

Kol. zk. 829  
Harategiko kalea 1, behea-A  
(Ardantzabidetik Sartuta 4. Solairua)

Tel. 943860247  
[www.iplazaola.net](http://www.iplazaola.net)



**BANCO  
MEDIOLANUM**  
MEDIOLANUM BANKING GROUP

*Banku hobea*

Jar zaitez gure kontsultariarekin harremanetan

Telf. 653.019.681  
[emayasori@bancomediolanum.es](mailto:emayasori@bancomediolanum.es)  
[www.bancomediolanum.es](http://www.bancomediolanum.es)

Bertendona Kalea 6  
Pk 48001, Bilbo  
Telf. 944 790 022